

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, HERNANIKO UDALAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2016.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen joan den martxoaren 22an Hernaniko Udalaren, Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak bere tokiko erakunde autonomoaren eta Ereñotzuko toki entitate txikiaren ekonomia-finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2016ko ekitaldikoa.

2016ko ekitaldiko **Urteko kontuei** dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du, nahiz kontularitzako zenbait doiketa azaleratu diren, Udalaren Diruzaintza Geldikina 288 mila euroren zenbatekoan gehituko luketenak; berebat, ezin ondoriorik atera izan da fiskalizazio-gai izan diren erakundeen Ibilgetu ez finantzarioaren zuzentasunari dagokionez.

HKEEk fiskalizazio-gai izan duen Kontu Orokorraren egoera finantzarioa aztertu du. Udalak eskuratzen duen aurrezki garbi positiboak kaudimen ekonomikoko egoeran jartzen du, ohiko funtzionamendurako behar hainbateko baliabideak dituela eta zorpetu beharrik izan gabe, etorkizuneko inbertsioei berezko baliabideekin aurre egiteko moduan.

Halaber, txostenak ondorioztatu du Udalaren kontu-hartzaileak jaulkitako txostenaren arabera, 2016an aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasun eta gastuaren araua bete dela.

Bai Udalak, bai bere tokiko erakunde autonomoak eta toki erakunde txikiak zuzentasunez bete dute 2016ko ekitaldian jarduera ekonomiko-finantzarioa arautzen duen lege arautegia, nahiz bide-garbiketa zerbitzuaren kontratazioa, okerbidez, zerbitzu publikoa kudeatzeko modura kalifikatu zen.